



## ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA

Oinarrizko maila

**Prozedura irekiaren bitartez eta lehiaketaren bidezko esleipenaren bitartez kontratatzeke ingurumen-irizpideak**

Ingurumen-irizpide horiek prozedura irekiaren bitartez eta murriztuaren bitartez (kasu honetan aurretiko hautespen-fasea egokituz) nahiz orokorrean abantaila gehien ematen duen eskaintza-sistemaren bitartez kontratatzeke balio dute edo soil-soilik prezio hoberena aurkezten duen eskaintza kontratatzeke (kasu horretan ez dira adierazitako esleipen-irizpideak aplikatuko).

Energia elektrikoaren hornidura kontratatzeke informazio hori eskuragarri dago hiru eskakizun-mailatan (oinarrizkoa, aurreratua eta bikaina), entitate bakoitzak eskakizun-maila bere egoera zehatzera egokitzeko.

### 1. Kontratuaren xedea

Puntu honetan, garrantzitsuen da aipatzea ingurumen-arloko irizpideak hartuko direla kontuan.

#### 1. koadroa.

##### **Energia elektrikoaren hornidura**

Kontratu honen xedea da energia elektrikoaren hornidura, [zehaztu kontsumo-puntuak] (e)ko eskaera estaltzeko. Titularra [entitate kontratatzailea] da.

Kontratazio honetan aurreikusten da gutxienez % 20 energia-iturri berriztagarrietatik edo efizientzia altuko kogeneraziotik sortutako energia elektrikoa erostea.

### 2. Hautaketa-irizpideak: Gaitasun teknikoa eta profesionala

Entitate lizitatzailleek beren proposamena aurkezteko dokumentazioan bildu eta egiaztatu behar dituzten gutxienezko baldintzak dira. Atal honetan ez dira garatu energia-hornidurak kontratatzeke gaitasun-irizpideak.

### 3. Nahitaez bete behar diren espezifikazio teknikoak

Entitate lizitatuzaileek aurkezten duten proposamenean, zehaztu beharko dute betetzen dituztela pleguetan biltzen diren preskripzio teknikoak, kontratazioa eta lortu nahi diren ingurumen-baldintzak bat etortzeko aplikatu behar direnak. Baldintza horiek nahitaez bete behar dira, eta ez dira baloragarriak, proposamenaren ezinbesteko baldintzak baitira.

#### 3.1. Energiaren jatorria

##### 2. koadroa

##### Energiaren jatorria

Hornitutako elektrizitatearen **%20** energia-iturri berriztagarrietatik edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortutakoa izango da.

2009/28/EE Zuzentarauan deskribatzen denez, energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako elektrizitatearen barnean honako hauek sartzen dira: energia eolikoa, eguzki-energia, energia aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegietako gasak eta biogasa.

2012/27/EB Zuzentarauan deskribatzen denez, efizientzia handiko kogenerazioa da: lehen mailako energia gutxienez % 10 aurreztea ekarriko duen kogeneraziotik eta maila txikiko kogenerazioko eta mikrokogenerazioko unitateen ekoizpenetik eratortzen dena.

Hornitutako elektrizitatearen **%20**eko jatorri hori Jatorri Berriztagarria Bermatzeko Ziurtagiriarekin egiaztatuko da.<sup>1</sup> Helburu hori betetzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: elektrizitatearen Jatorria Bermatzeko Sistema, 2009/28/EE Zuzentaruarekin bat etorrira ezarritako entitate Ziurtatzaileek ematen dutena, baita ITC/2914/2011 Aginduak aldatzen duen maiatzaren 24ko ITC/1522/2007 Aginduan, IET 931/2015 Aginduan eta energia-iturri berriztagarrietatik eta efizientzia handiko kogeneraziotik eratorritako elektrizitatearen jatorriaren bermearen erregulazioa ezartzen duen Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) 6/2012 Zirkularrean ezarritako Jatorria Bermatzeko Sistema ere.

<sup>1</sup> Bai energia berriztagarria, bai efizientzia handiko kogeneraziotik datorren energia MLBN-k ematen dituen Jatorri Berriztagarria Bermatzeko ziurtagiriaren bitartez egiaztatzen dira.

### 3.2. Kontsumitzailearentzako informazioa

#### 3. koadroa

##### Kontsumitzailearentzako informazioa

Hilero, hilabete naturalarekin bat etorriz, entitate esleipendunak entitate lizitzaileari honako informazio hau bidaliko dio, gutxienez goi-tentsioko hornidurari dagokionez:

- Amaitutako epean egindako horniduraren kontratu guztien zenbatekoen batura biltzen duen faktura. Faktura hori honela banakatuko da:
  - Sarrera-tarifari edo tarifa finkoari dagokion guztizko zenbatekoa, gehiegizko potentziari dagokiona banakautz, baldin eta halakorik badago.
  - Energiaren zenbatekoa guztira
  - Energia erreaktiboaren zenbatekoa guztira, baldin eta halakorik badago.
  - Neurtzeko ekipoen alokairuaren zenbatekoa guztira.
  - Elektrizitatearen zergari dagokion zenbatekoa.
  - BEZaren zenbatekoa guztira.

Faktura hori formatu elektronikoan entregatu beharko da.

- Fitxategi bat, excel formatuan edo entitate kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den beste formatu batean egina. Fitxategi horretako errenkadetan kontratu guztiak azalduko dira, eta zutabeetan, aldiz, kontratu bakoitzari buruzko informazio hau:
  - Kontratuaren Hornidura Puntuen Kode Bateratua (HPKB).
  - Elektrizitate-merkatuzaileak esleitutako kontratuaren erreferentzia.
  - Horniduraren helbidea.
  - Fakturazio-aldia.
  - Kontratutako kW-en sarrera-tarifa, aldi bakoitzari dagokiona.
  - Eskatutako kW-en benetako potentzia, aldi bakoitzari dagokiona.
  - kW kontsumoa, aldi bakoitzari dagokiona.
  - Energia erreaktiboaren kontsumoa edo potentzia-faktorea.
  - Kontrataturiko potentziaren kostua eurotan.
  - Eskatutako gehiegizko potentziagatiko errekargua eurotan.
  - Kontsumitutako energiaren kostua eurotan.
  - Energia erreaktiboaren kostua eurotan.
  - Neurtzeko ekipoen alokairuaren kostua eurotan.
  - Energiaren hornidurari buruzko beste edozein datu, entitate

lizitatzailarentzat ustez interesgarria dena.

- Zenbat tona CO<sub>2</sub> baliokide aurreztu diren atmosferarako emisioetan.

Sei hilean behin, entitate esleipendunak honako hauek igorriko dizkio entitate lizitatzailari:

- Excel formatuan egindako txosten bat, kontsumo-puntu bakoitzeko energia errektiboaren kontsumoaren jarraipena eta instalazioaren errendimendua hobetzeko neurrien proposamena biltzen dituen.

Urtero, entitate esleipendunak honako hauek igorriko dizkio entitate lizitatzailari:

- Excel formatuan egindako txosten bat, kontsumo-puntu bakoitzerako kontratatutako potentzian izandako desbideratzeen jarraipena biltzen duena eta beharrezkoak eta komenigarriak diren potentzia-doikuntzak proposatzen dituen.
- Hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoen urteko bilakaerari buruzko informazioa biltzen duen txostena, entitate kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den formatu batean.

## 4. Zerbitzua betetzeko irizpideak

### 4. koadroa

Kontratua Exekutatzeko Baldintza Berezia da iturri berriztagarrietatik etortzea entitate esleipendunak hornitzen duen elektrizitatearen **%20**.

Entitate esleipendunak hornitzen duen elektrizitatearen **%20** iturri berriztagarrietatik etorri behar da, eta, ondorioz, hornitutako energiaren jatorria egiaztatzeko ziurtagiri bat aurkeztu behar da, MLBNk emana, bat etorri ITC/1522/2007 Aginduarekin; izan ere, ziurtagiri horren bidez bermatzen da betetzen dela betekizun hori. Beraz, baldintza hori ez betetzea Kontratua suntsiarazteko arrazoitzat joko da.

## 5. Esleipenerako irizpideak

Esleipenerako irizpideetan, zehatz-mehatz zehaztu behar dira irizpide guztiak, eta esleipenerako aurreikusitako puntu guztien barnean ematen zaion balioespena (puntu zehatzak) ezarri behar dira. Garrantzitsua da ingurumen-irizpide horien eta kontratua esleitzeko gainerako irizpideen arteko orekari eustea. Adibidez:

### 5.1. Jatorri berriztagarria duen energiaren % handiagoa

#### 5. koadroa

**Jatorri berriztagarria duen energiaren % handiagoa, X punturaino**

%-a balioetsiko da energia-iturri berriztagarrietatik edo baldintza teknikoaren pleguan eskatzen den errendimendua baino errendimendu handiagoko kogeneraziotik sortutako eta hornitutako elektrizitatea.

Puntu bat emango da mota horretako elektrizitatea % 10 gehitzen den bakoitzeko.

### 6. Eskaintza teknikoaren edukia

#### 6. koadroa

Entitate lizitatuak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, honela zehaztuta:

a) Gutxienez honako informazio hau jasoko duen memoria teknikoa:

- Energiaren jatorria
- Kontsumitzailearentzako informazioa eta txostenen formatuak

b) Baldintza espezifikoaren fitxa behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horri nahitaezko espezifikazioak, balioetsi daitezkeenetatik hasita entitate lizitatuak betetzeko konpromisoa hartzen duen espezifikoetara, bete direla abalatzaren duten frogagiri guztiak erantsiko zaizkio.

Eskaintzaileari dagokio pleguan definitutako estandarren eta beste frogagiri baliokide batzuen arteko baliokidetasuna frogatzea; horretarako, baliokidetasun hori argi frogatzen duten ikerketa teknikoak aurkeztu beharko ditu.